



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko azaroaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko azaroaren bian, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IÑARRA François
Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio

Deialdiaren eguna : 2021eko urriaren 29a

Afitxatze eguna : 2021eko urriaren 29a

7.ERABAKIA HAUTETSI BATEN LANDAREEN EROSTEKO AITZINATU GASTUEN ORDAINTZEA

Nomenklatura : 5.6

Jaun Auzapezak zehazten du entzulegoari hautetsi batek zuhaitz, zuhaixka landare eta belar haziak erosi dituela Herriaren kondu herriko hiru eskoleko hurrek landatu dituztenak 2021ko urri hastapenean iragan den Klimaren astekari.

Seinalatzen du
faktura bat.

Jaunak bere dirutik pagatu duela 347.70 euroko

Proposatzen du Herriko Kontseiluari hautetsiaren ordaintzea erakutsi eta pagatu dituen fakturen heinean.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren,
Jauna Kontseiluko gelatik atera ondoan,

- **ERABAKITZEN DU**, Jaunari 347.70€ ordaintzea Herriaren kondu erosi dituen zuhaitz, zuhaixka landare eta belar hazientzat.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12

ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko azaroaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/11/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/11/05ean.

